


# EXCERPTA

5.zenbakiaren

GEHIGARRIA

1986-azaroa



O L E R K I A K

jon gotzon etxebarria  
gernika

## OHARRA

Nor eta nolako olerkaria zen Horatius Zaitegi-k poliki azaltzen du bere GOLDAKETAN liburuaren o harkizunean, Orati-ren olerki-itzulprenaren aurretik ("Goldaketa", Mexiko; Pizkunde, Euskal Argitaraztzailea, 1946). Horixe damaizut nik ere sarrera moduan.

Zaitegi-k "iruzpalau" dio euskaraztu dituela; eta sei dira guztiz. Eurotarik bat "O navis referent" hasten dena nik ere itzuli nuen behinola eta al dera dezazun, azkenean, Zaitegi-ren itzulpena ere ipini dizut.

"Lauaxeta"-ren "Neguko Gaba"-k lehenengo bi aha paldietan omen du antz handia; batez eredio Zaitegi-k eta, egia esan, hori baino askoz ere handiagoa da bion arteko antza. Horregatik, azken orri aldeetan Lauaxeta-rena osorik aldatu dut eta le rroz lerro Orati-renarekin alderatuko dugu.

Aspaldi dela, Aita Santi Onaindia-k "Egan"-en e man zion hasiera Orati-ren oden itzulpenari. Ordutik hona denak bukatu ditu eta oraintxe omen dihardu prestatze-lanetan, olerkien bost liburuak argitaratzeko.

Tamalez, aspaldion klasikoen lan ugari argitatu da gure artean, baina hizkuntza orijinalarik gabe. Ene ustez, Grezi-erromatarrenak behintzat, grekoz eta latinez ere eman beharko lirateke, batez ere autoritate gisa aipatzekoak direnak.



## ORATI ENE BEGIETAN

*Erroma iria eraiki ondorengo 689' garren urtean yayo zan. Beraz, Iesukisto yayo aurreko 65' garren urtean. Zortzigarren urtean il zan. Benusitarra zenun yayotzez; erromarra bizitzez. Soñez, txikar eta gizen xamarra. Gogo-biotzez alai. Asarre etreza. Aren burua orrela azaltzen dute beraren olerkiak.*

*Orati'ren olerkiak irakurtzean, gogoa nare, soña osasunez, biotza kezka gabe ta urdailla erdi beterik zitula dirudi. Geiegikeri guziak iñausi zitun. Erdi-unean lotu zan. Aberaski geiegi edo urriegi izatea ere ez zitzzion atsegin.*

*Izan dan lirikurik aipatuenetakoa duzu. Aren go-goa, ota abar igarra su-nai baño olerki zaleagoa zenun.*

*Idaztankera zaintsu, landu ta yasoa du. Kemen eta irardausi oneko olerkaria duzu. Berak bezin labur eta indarrez bere asmoak adierazi ditun olerkaririk oraindiño ez da izan. Dirudinez, izenondo bete, egoki*

*ta tinkoa erabiltzeko uzi aundia zizun. Alare, girgilleririk ez zun nai. Belaxka ta urrixa ez zan, gizaki ta orotsa baizik. Ikasteak ez zion biotza legortu. Aren olerkien ezo mardulak ozkamin egiten digu. Bulkoz yori da, ordea.*

*Gañera, aren olerkietan itz-neurtu baldan, zabar eta baldarrik ez duzu nabaituko. Itz-neurtu biribillez ahapaldi ozenak idatzi zitun. Elade'tik Erroma'ko zelaietara ahapaldi berriak ekarki. Zatarri edo rripiorik iñoz ez zun idatzi. Neurtizkera erabiltzen ere ederraren sena zizun, oso ao goxo izaki.*

*Orati'ren olerkiak geienez agitz laburrak dira. Olerkari danaren biotzondoa bospasei ahapaldietan ustu baiditeke. "Orixé" izpidean dago. Euskel-olerkiak sarritxo luzegiak dituzu.*

*Orain, ordea, Erroma'ko beste olerkari bikañen buruz, bekaldetu nai dizut.*

*Obidi'ren olerkiak, eskuarki, gurpillet negarra bezin ots bakarrak dituzu, edo, zoi tartean txir-txirka ari dan kilkerra bezin mintzo-bakarra du.*

*Orati, berriz, batean bere adiskideekin izandako yai-edateaz alaitzen da; bestean, gaztedia gudazale egin nai du; urengoa, olerkariei bide zuzen eta arteza erakusten die; beste batean, bere erkide ezagu-nei parre zantzoz ta purrustadaka eztena sartu oi die. Gizon zimelak beren naigabeak yaurtitzen ditute aren olerkiak irakurrita; gaztien buru-biotzak alaitzen ditu*

aren olerkietan aruntz-onuntz dabillan zaragiko ardoak.

Noizpenka, an doa egazka mendirik mendi, arrano ortzizalearen antzera; gero, berriz, lore txuri gorri urdiñen kukulu garbian poliki ta maitiro sartzen da, erle langille irudi, lorearen baitan ezti-gaia biotzez biltzera.

Euskel-elertian Orati'ren aztarnarik ba-ote? Bai, noski. Orainaldi ontako olerkietan aren oñatza oar dezakezu, Alegia, "Orixe"k "Beatus ille" euskertzean antze lan ikusgarria egin zizun. Aren zaiña ta muiña ederki alda zitun. Orten mardul izkera gutxik itzuli dutelakoan nagokizu. Ain zuzen ere, Ormaetxea yaunaren elerti-azatza adoia artuarena duzu.

Areago oraindik. Ez zaite arritu. "Lauaxeta" orrazi-zalearen zenbait olerkik ere Orati'ren yarioa dute. Antxiñako ta oraingo ainitz olerki irakurri baiditu Urkiaga aipagarriak. Beraz, "Neguko gaba" irakurizean bederen, "Non vides ut alta stet nive Soracte" gogoratzen zait: batez ere lenbiziko bi ahapaldietan.

Lizardi bikaiñaren idaztankera bete ta laburrak ezarian Orati'rena burura dakarkit: beste irizle batzuk ere onelatsu uste dute.

Orati'ren iruzpalau olerki erakusburuz aldatu dizkitzut. Biziki usutuz doazin euskel-olerkariei eskeintzen dizkiet. Ikus:

### HORATIUS-en LANAK

Olerki-liburuak	{ 1 2 3 4 5	odak epodoak
-----------------	-------------------------	-----------------

### Carmen Soeculare

Satiren liburuak	{ 1 2
------------------	----------

Eskutitzen liburuak	{ 1(XX gutun) 2(II gutun eta ondoren "Ad Pisones" ospetsua)
---------------------	---

Azkenengo hau da mundu guztian eta aldi guztietan Arte Poetika bikaintzat hartua izan dena.

## AD LYRAM.

Poscimus, si quid vacui sub umbrâ  
 Lusimus tecum, quod et hunc in annum  
 Vivat et plures, age, dic Latinum,  
 Barbite, carmen,

Lesbio primùm modulate civi; 5

Qui ferox bello, tamen inter arma,  
 Sive jactatam religarat udo  
 Litore navim;

Liberum, et Musas, Veneremque, et illi  
 Semper hærentem puerum canebat, 10  
 Et Lycum, nigris oculis nigroque  
 Crine decorum.

O decus Phœbi, et dapibus supremi  
 Grata testudo Jovis; ò laborum  
 Dulce lenimen, mihi cumque salve 15  
 Ritè vocanti.

Hemengo testoan POSCIMUS badakar ere, gurago  
 izan dugu POSCIMUR ("Les Carmina d'Horace",  
 Classiques Roma, Librairie Hachette, 1962)da-  
 karren argitalpena. Eta horren arauera egina  
 dago itzulpena.

## LIRARI(I,32)

Eske datorridaz: Itzalpean, astiz,  
 ezer onik ondu banuen, jo beza  
 nire arrabitak orain eta geroko  
 urteetan dirauken latinez neuritzza.

Lehenen, gozoki, Lesbiar harentzat:  
 gudari bulartsu, gudaketan ontzi  
 astindua itsas=ertz hezean lotuz  
 gero hauxe zuen abestitzat euki:

Liber, Musak, Benus eta hari beti  
 zerraion umea; baita Liko ere  
 abestuten zuen, begi beltzez eta  
 adats beltzaranez ederra, halere!

Phœbo-n edergarri ta oturuntzetan  
 Jupiter handian dortoka atsegin;  
 nekeen aringarri gozoa, zatozkit,  
 dei eginez gero egikeretan duin!

(6):(sive)inter arma

(10): Cupido

(14): Merkuri-k asmatu omen zuen lehenengo lira,  
 dortoka baten oskolaz.

## AD AGRIPPAM.

Scriberis Vario fortis, et hostium  
 Victor, Mæonii carminis alite,  
 Quam rem cumque ferox, navibus aut equis,  
 Miles, te duce, gesserit.

Nos, Agrippa, neque hæc dicere, nec gravem  
 Pelidæ stomachum, cedere nescii,  
 Nec cursus duplicitis per mare Ulyssei,  
 Nec sævam Pelopis domum

Conamur, tenues grandia: dum pudor,  
 Imbellisque lyrae Musa potens vetat  
 Laudes egregii Cæsaris et tuas  
 Culpâ deterere ingenî.

5

10

## AGRIPA-ri(I-6)

Bari-k, Meoni-ko neurtitzen kisneak,  
 hauxe idatziko du zerorri buruz:  
 etsaien garaile kementsua, ontziz  
 zein zaldiz gudari latzek, zuk aginduz,

jarduten zutela. Ni, Agripa hori,  
 gauzok azaltzeko ta Pelear haren  
 urdail astuna nor ez naiz, jo eiteko,  
 eta ez noa zer handirik esaten:

Ulises antzetsu ha nola zihoan  
 itsasoan, ezta Pelope-n etxeko  
 bizimodu latza ere. Ta gainera  
 arnasa handirik ere ez dut hortako.

Erabeak eta nire lira makal  
 honen Musa onak ez dute gura, antza,  
 asmamenik ezaz ilundu dezadan  
 Kaisar handiaren ta zure goraltza.

---

(10): potens+genit.= -an agintzen duena.

Quis Martem tunicā tectum adamantinā  
 Dignè scripserit, aut pulvere Troico  
 Nigrum Merionem , aut ope Palladis  
 Tydiden superis parem?

15

Nos convivia, nos prælia virginum ,  
 Sectis in juvenes unguibus acrium ,  
 Cantamus vacui, sive quid urimur ,  
 Non præter solitum leves.

Nork azaldu behar lez harribitxizko  
 soingainekoz doan Marte,Troiar hautsez  
 beltza den Menion ta Tidis,jainkoen  
 mailakoa dugu ta,Palas-en antzez?

Nik neuk oturuntzak eta neskatila  
 minberak,hatzazal zorrozdunak,dodaz  
 abesgai,gazteekin borrokan direnak,  
 lasai edo,ohi lez,maitemin arinaz.

---

(18):sectis unguibus=borroka hain zogorra ez dela.

## IN MÆVUM.

Malâ soluta navis exit alite,  
 Ferens olen tem Mævum:  
 Ut horridis utrumque verberes latus,  
 Auster, memento fluctibus.  
 Niger rudentes Eurus, inverso mari, 5  
 Fractosque remos differat.  
 Insurgat Aquilo, quantus altis montibus  
 Frangit trementes ilices.  
 Nec sidus atrâ nocte amicum appareat,  
 Quâ tristis Orion cadit: 10  
 Quietiore nec feratur æquore,  
 Quâm Graia victorum manus;  
 Cum Pallas usto vertit iram ab Ilio  
 In impiam Ajacis ratem.  
 O quantus instat navitis sudor tuis, 15

## MEBIO-ren AURKA(V-10)

Sokak askatu ta badoa arin  
 ontzia, usaindun Mebi  
 doroalarik. Hego-haizea,  
 joizu gogor itsasontzi-  
 alde bietan uhin bortitzez.  
 Euro haize beltzak jaurti  
 bitza itsaso haserrera arraun-  
 puskak, loturak nahasi.

Ipar-haizea sortu dadila,  
 aritzak mendi goietan  
 dardaraz hautsi doroatzana  
 bezain gogor; gau beltzean  
 ez bedi izar lagunik ager  
 Orion, latz, sartuz doan  
 aldetik; joan dadila itsasoz  
 larri, Grekoen moduan:

Halaxe joan ziren galdurik,  
 Palas-ek, Troia erreta,  
 Ajax-en ontzi gaiztoaren gain  
 bere sumina igorrita.  
 Lanak izan dituzu itsasoz!  
 Heriotzaren ikara,  
 gizonarena ez den ai baten,  
 Jupiter mindua arrenka!

Tibique pallor luteus,  
 Et illa non virilis ejulatio,  
 Preces et aversum ad Jovem,  
 Ioniū udo cum remugiens sinus  
 Noto carinam ruperit!

20

Opima quòd si præda curvo litore  
 Porrecta mergos juveris,  
 Libidinosus immolabitur caper,  
 Et agna Tempestatibus

Hego-haizeak sortu ekaitzan  
 Joni golkoak amorruz  
 darantzunean, ontzia zati  
 eginda, xilinei, erruz,  
 ondakin gozo gerta bazindez,  
 berton eskainiko doguz  
 aker lizuna ta ardi emea  
 Ekaitzen jainkoei buruz.

## HORATHI ET LYDIÆ DIALOGUS.

HORATIUS.

Donec gratus eram tibi,  
 Nec quisquam potior brachia candidæ  
 Cervici juvenis dabat,  
 Persarum vigui rege beatior.

LYDIA.

Donec non aliam magis                        5  
 Arsisti, neque erat Lydia post Chloen,  
 Multi Lydia nominis  
 Romanâ vigui clarior Iliâ.

HORATIUS.

Me nunc Thressa Chloe regit,  
 Dulces docta modos, et citharæ sciens, 10  
 Pro quâ non metuam mori,  
 Si parcent animæ fata superstitione.

LYDIA.

Me torret face mutuâ  
 Thurini Calais filius Orniti,  
 Pro quo bis patiar mori,                        15  
 Si parcent puerò fata superstitione.

## ORATI ETA LIDIA-ren ELKARRIZKETA(III-9)

Gogoko nintzaizun bitartean inork  
 ez zuen besorik jarri hain emeki  
 maitearen lepo zurian; banuen  
 Persar erregeak beste gozagarri.

Beste inorgatik hain sutsu ez zinen  
 bitartean eta Lidia hau Kloes  
 baino gitxiago ez zenean, Ili  
 Erromarra bezain bikain nintzen ospez.

Orain Tresa Kloes gozoak narabil,  
 kitara jotzen bait daki. Beragatik  
 beldur gabe hilgo nintzake, zoriak  
 utz baliezaio animari onik.

Arpegiak batuz Turi-ko Kalais-ek,  
 Orniti-n semeak, berotzen nau. Bitan  
 hiltzeko prest nago haugatik, utziko  
 balit zori onak haurra bizi hontan.

---

(12): animae, "nire bizitza den Kloe"

## HORATIUS.

Quid , si prisca redit Venus ,  
 Diductosque jugo cogit aëneo ?  
 Si flava excutitur Chloe ,  
 Rejectæque patet janua Lydiæ ?

20

## LYDIA.

Quamquam sidere pulchrior  
 Ille est , tu levior cortice , et improbo  
 Iracundior Adriâ ,  
 Tecum vivere amem , tecum obeam libens.

Lehengo Maitea atzera baletor ,  
 zer , aldenduok bat egiten baditu ?  
 Zer , Kloes saminez bidali ta atea  
 ahantzi Lidi - ntzat zabaltzen badugu ?

Artizarra baino ederrago hura .  
 Zeu , berriz , txorkoa baino arinago ,  
 Adri itsaso latza bezain haserrekor .  
 Zurekin poz bizi - hiltzeko prest nago .

## AD THALIARCHUM.

Vides ut altâ stet nive candidum  
Soracte, nec jam sustineant onus  
Silvæ laborantes, geluque  
Flumina constiterint acuto?

Dissolve frigus, ligna super foco  
Largè reponens; atque benignius  
Deprome quadrum Sabinâ,  
O Thaliarche, merum diotâ.

Permitte Divis cætera, qui simul  
Stravere ventos, æquore fervido  
Depræliantes, nec cupressi,  
Nec veteres agitantur orni.

Quid sit futurum cras, fuge quærere; et  
Quem fors dierum cumque dabit, lucro  
Appone: nec dulces amores  
Sperne puer, neque tu choreas,

5

10

15

## TALIARKO-ri (I-9)

Horra Soraktes-gaina edurrez  
zuri,basoak,edurra jasan  
ezinik guztiz abaildurik ta  
ibaiak geldi lei zorrozean.

Ipini sarri sutan egurra  
hotza kentzeko ta atera,ugari,  
ardo zaharra Sabinia-ko  
edalontzian,Taliarko hori!

Utzi jainkoei beste ardurak:  
itsas haserrez haizeen liskarra  
bigunduz gero,geldi dagokez  
nekostak eta zumar zaharra.

Utzi alde bat etorkizuna.

Eman egunak beti onean  
heldu-ahala.Maitasunaren  
gozoa ez utz inoiz gaztetan,

ezta dantzari-taldea ere,  
sendo bazara,ile urdinak  
urrum-luzakor dauzkazu eta.  
Betoz Marte eta laster-zelaiak!

---

(2):Soracte,Erromatik 27 milatara dagoen mendia,700  
metrotakoa,ifarralderantz.

Dó nec virenti canities abest  
 Morosa. Nunc et campus, et areæ,  
 Lenesque sub noctem susurri  
 Composita reputantur horâ.

20

Nunc et latentis proditor intimo  
 Gratus puellæ risus ab angulo,  
 Pignusque deroptum lacertis,  
 Aut dígito malè pertinaci.

---

(8):diota, helduleku edo belarri biko ontzia;  
 grekotik: δύο + οὐς, ὡτός

Gaeuz susmurru bi gunak bebilz  
 une egokian; neska isilaren  
 barre-algara gozoa betor  
 barru-aldetik bera salatzen.

Izan dezagun orain atsegin  
 betea,edo besoetatik  
 edo hain ondo gogor egiten  
 ez dakiten hatz horietatik.

---

(18):Campus,Marte-rena.

## AD REMPUBLICAM.

O navis , referent in mare te novi  
 Fluctus ! O ! quid agis ? fortiter occupa  
 Portum. Nonne vides ut  
 Nudum remigio latus ,

Et malus celeri saucius Africo ,  
 Antennæque gemant ? ac sine funibus  
 Vix durare carinæ  
 Possint imperiosius

Æquor ? Non tibi sunt integra linteæ ;  
 Non Dī , quos iterum pressa voces malo . 10  
 Quamvis Pontica pinus ,  
 Silvæ filia nobilis ,

Jactes et genus et nomen inutile :  
 Nil pictis timidus navita puppibus  
 Fidit : tu , nisi ventis  
 Debes ludibrium , cave .

Nuper sollicitum quæ mihi tedium ,  
 Nunc desiderium , curaque non levis ,  
 Interfusa nitentes  
 Vites æquora Cycladas . 20

## ERREPUBLIKARI (I-14)

Ene itsasontzi,uhinek berriz  
 zeu aterako ote itsasora?  
 Zer ari zara?Bihurtu zaitez  
 zuzen-zuzenki portu-aldera.

Ez duzu ikusten?Alboak arraun  
 gabe,tantaiak aprikar haize  
 azkarrak hautsi,hariak kirrink,  
 olak uretan lokarri gabe!

Oihalik ez duzu osorik ,  
 ezta Jainkoak ere,ekaizpean  
 berriz deitzeko.Alperrik Ponto-  
 lerrondo,baso handikoa izan.

Jatorri ta izen handia euki  
 arren,itsastar horrek,beldurrez ,  
 ontzi atzeko margokietaz  
 uste handirik erabili ez!

---

(11):Ponto Euxino-ko basoetatik ateratzen ziren pinu  
 ederrak ontzigintzarako.

Haizeen jostailu bihurtu nahi  
ezik,arduraz ibil beharko.  
Oraintsu arte aski artega,  
orain lehia ta ardura izango.

Ene itsasomtzi,hauxe daskatsut:  
ez dezazula Kiklada izaro  
distiratsuak inguratuten  
dituen kresal hori igaro.

(Zaitegi-k itzulia)

### O NAVIS REFERENT...

Ene ontzi ori! Berriz itxasorantz  
eramango auté olatu berriak.

Ene! Zertan ari aiz ba?  
Ditxoari gogor eutsi!

Aral arraun-uts eta ego-aize beltzak  
ausi-endaitza duk! Ardatz-negarra ez  
dantzuk ala? Lokarrike  
nola yasan erauntsia?

Zapi osorik ez, ekaitzak berriro  
atxikitzean, ots eiteko Yainkoik ez.  
Alperrik goietsiko duk  
eure izen aipatua.

Naiz izan ler-zurez baso ospetsu seme,  
txopa irudietan bidazti beldurtik  
ez ditxaro. Begira! aizeen  
parregarri nai ez baduk.

Len oñaze samin, orain kezka larri  
zaikidan orrek! Or-emenka ugarterez  
yositako Zikladaen  
itxasotik iges egik.

## AD MELPOMENEN.

Exegi monumentum ære perennius,  
 Regalique situ pyramidum altius ,  
 Quod non imber edax , non Aquilo impotens  
 Posit diruere, aut innumerabilis  
 Annorum series et fuga temporum.                   5  
 Non omnis moriar; multaque pars mei  
 Vitabit Libitinam. Usque ego posterā  
 Crescam laude recens , dum Capitolium  
 Scandet cum tacitū virgine pontifex.  
 Dicar quā violens obstrepit Ausidus,              10  
 Et quā pauper aquæ Daunus agrestium  
 Regnavit populorum , ex humili potens,  
 Princeps Æolium carmen ad Italos  
 Deduxisse modos. Sume superbiam  
 Quæsitam meritis , et mihi Delphicā              15  
 Lauro cinge volens , Melpomene , comam.

## MELPOMEN-i (III-30)

Oroitarri bat dut eraikia,  
 brontzea baino iraunkorrago  
 ta erregeen etxe-orube,  
 piramideak baino gorago.  
 Euri gogorrak,haize makalak  
 ez dute jango,ezta urteen  
 iladek ere;ez aldien urrats  
 lasterrak ere.Ez naiz den hau hilen.  
 Nire zati on bat bai itzuri  
 Libitina-ri.Orain naizena  
 beti handituz etorriko da  
 ondorengoen hitz-goralpena,  
 Apaiz nausia neska isilaz  
 Kapitoli-ra digon artean.  
 Aufidus sendo ta zarataka  
 igarotzen den lurralteetan.  
 Ta Dauno-k urik gabe herritar  
 basatien gain agintza euki  
 zuen lurralde haietan nitaz  
 hauxe esango dute,ziurki:

(7(:Venus Libitina,hiletten Jainkosa.

(10):Aufidus,Apulia-ko erreka

Jatorriz apal zen harek, maisu  
handi eginik, Ital-erara  
egokitu ta aldatu zigun  
Eolia-ko olerki-era.

Jaso, Delphos-ko Melpomen horrek,  
hain merezita daukazun aintza  
ta ipin ezazu, gogara, nire  
adats incuru, zure ereñotza.

(11): Daunus, antxinako erregea.

(15): Delphica, hau da, Delphos-koa, olerkarien  
babesle zen Apolo-rena.

(16): Molpemene, tragediaren eta olerki lirikoaren  
musa

## Neguko gaba

*Errenerteria'tar Gorgoni'ri bijotzez.*

Ara edur-zuriz, zuri, Oiz gorenak,  
eta ixotzak jorik geldi lats gurenak.  
Ibarretan edur zurijk  
dagijez ixara barrijak.

Odeizko yantzian dator negu latza:  
betiko gorubaz edurren matatza  
eunduten diñardu ortzian.  
Ameslari lerrak mendijan...

Orri-ikararik ez lertzun ta urkijetan,  
Garra k dirdir-begi suteko tresnetan.  
¡Axe otzoi, ua basora,  
ipuin zarrak betorz sutera!

Pertza albuau, dantzan, Muru'ko sorgiña,  
egazka Anboto'ko andere ziztriña.  
¡Lua betor umeen begira,  
amets-zitala, ua mendira!

Gorbeyan murraka axe eta edurra:  
¡Oi yakun samurra, suteko murmurra!  
Artega su-motots bixijak,  
yantzian mamu gorri yantzijak.

Ipiñi egurrik naiko sukaldian;  
sugarrak dirdira dagijan artian  
eztago edurren bildurrik.  
Ez ixan otzen ardurarik...

Egun obiaren deya da neguba;  
itxaro barik ez makurtu buruba.

Gau begitan dator eguna,  
zoritzar altuan, zoruna.

Asaben sutian piztu urrezko garra,  
ta goguan, bixitz-arau dan indarra.

Aberrijan txadon donia  
AREITZ-suba dagon sutia.

Or, negu latzezko gau-ordu luzeetan  
aintzezko itz-sakonak, idazti zarretan,  
daurkiz gogo ameslarijek.  
Asaben credu garbijak...

Poztu, ta bijotzak ez euki urduri;  
gaste ule baltz gara, ez zar ule zuri.  
Bijarkua itxi etorrijari,  
eta yantzan ta abesten ari.

Bixitza onetan ametsa da oro,  
zadorrik, arren, ez egixu nai idoro.  
Larrosak tori arantzetan,  
alde-ona billau gauzetan...

Ara edur zuriz, zuri, Oiz gorenak,  
eta ixotzak jorik geldi lats gurenak.  
Itxarorik ez urrun jaurti,  
billau bixitza onen neurri.

Piztu su-gorrija soña berotzeko,  
ta zartzaro-leunak edurrez beteko  
dauskubenerako buruba,  
jpiztu, arren, maitasunsuba!

(Ride Barrijak; Bilbo, 1931)

#### LAUAKETA

(Neguko Gaba)

(zenbakiek ahpaldia eta neuritzia adierazten dutenak, I-1; II-1)

Vides ut... (I-1)  
nive candidum(ibidem)

stet(alta nive)(ibidem) (Oiz) gorenak(ibidem)  
Horatius-ek Soracte mendigatik  
dioena, Lauaketa-k Oiz-egatik.

geluque/flumina constiterint  
acuto?(I-3,4)  
nec jam sustineant onus/silvae

laborantes...{I-2,3}

azkenengo honestan,hitz ezberdinak  
erabiliz gogoeta berdintsu iderokitzene.

Lerrak mendian(II-4)

Silvae(I-3)

## Dissolve frigus(II-1)

Axe otzoi, ua basora(III-3)

**idea antzekotxua**

Ligna super foco/large repo-  
nens(II-1,2)

(VI-1)

Dissolve frigus(II-1)

**idea ia berdina**

Ligna super foco/large repo-  
nens(II-1,2)

**antzerako idea e-  
ta berbeka**

Sabina/...diots(II-3,4)

Permitte Divis caeters(III-1)

**Jainkorik ez Lauaxe-**

34

Ipiñi egurrik naiko sukaldian  
(VI-1)

Ez laran otzen ardurarrik(VI-4)

Asaben sutian pistu urezenko ga-  
rra(VIII-1)

Garrak dirdir begi suteko tres-  
netan(III-2)

Lauaxeta-k ez du ardorik ez e-  
dalontzirik aipatzen.Bai, ordea,  
PERTZA albuau,dantza... (IV-1)

Muruko songifia/egazka Anboto-  
lo andere zistriña(IV-1,2)

Aberrijan txadon donia(VIII-3)

**ta-k;horren orlez,mitolo-  
giazko pertsonaiak eta a-  
berriaren txadon donia**

Stravere ventos(III-2)

neo cupressi,/neo veteres egi-  
tantur orni.(III-3,4)

(ventos)sequore perido/depre-  
liantes(III-2,3)

Ori-ikararrik ez lertun ta-  
urki jetan(III-1)

Axe otzoi, ua basora(III-3)

Ori-ikararrik ez lertun ta-  
urki jetan(III-1)

Corbeyan murruka axe eta edurra.  
(V-1)

**latinezkoan itsasoa,euska-  
razkoan Gorbea;batean hai-  
zeak,besteean axe eta edurra.  
Beste dena ia berdin:neprae-  
liantes-murruka**

Quid sit futurum oras,fuge que-  
rere(IV-1)

Bijarkua itxi etorriari(X-3)

35

Quem fors dierum cumque dabit,

luero/appone(IV-

Larrosak tori arantzetan,/

alde ona billau gauizetan...•

(XI-3,4)

billau bixitzta onen neurri.

(XII-4)

luero appone=alde ona billau

Egun obieran deya da negua.

(VII-1)

duloes amores(IV-3)

nec. /sperne puer, neque

tu choresas(IV-3,4)

Donec virenti eanities abest/  
norosa(V-1,2)

gaste.../eta yantzaz ta abesten a-

ri.(X-4)

gaste ule hultz gara,ez zar ule  
zuri(X-2)

ta zartzaro leunak edurren beteico  
dausku benerako buruba(XIII-2,3)

Lenesque sub noctem susurri(V-3)

Oi yakun samurra,suteko murmu-  
rra(V-2)

Latinezko azkenengo aha-  
paldiak ez du berdinik eus-  
kerazko olerkian

Nunc et Campus et areae(V-2)

Ipuin zarrek betoroz sutera(III-  
4)

aintzeeko itz sakonak,idazti ze-  
rretan(VII-2)

borrokok,soinketa eta ar-  
tzeako ariketen ordez Laua-  
xeta-k ipuinak eta ele zaha-  
rrak amester ditu,Horatius-ek  
ez bezala.

Lauaxeta-k azken bi shepelldietan Horatius-ena berritzten du,Horatius-en hasierakoaz,  
hain zuzen ero:Ara edur zuriz zuri,Oiz gorenak/eta ixotzak jorik geldi lats gure-  
nek(XII-1,2);Piztu su gorrija soña berotzeko(XIII-1)Horatius:(I-1,3,4),(II-1,2)

HORATIUS-en IZENA EUSKAL ITZULPENETAN	
HORATIUS	X.Kintana eta beste (Hiztegia 2000)
HORATIO	X.Kintana(ibidem) Axular(GERO, II.kap.)
ORATI	Orike(Beatus ille)  Zaitegi(Goldaketen, Mexiko, 1946)  Amezaga,B.(Hamlet, Ekin,Buenos Aires, 1952)  Larrakoetxea,B.(Ham- let;Kardaberaz Baz.)  Onaindia,S.(Egan al- dizkarian Orati,nahiz Irigarai-k edo Hora- ti ipini)
ORATIO	S.Garriga(AD PISONES, BIAEV,1961-2)

<u>izenak</u>	<u>orrialdeak</u>
Aeolius.....	28
Agrippa.....	8
Aufidus.....	28
Ajax.....	12
Capitolium.....	28
Cyclades.....	24
Calais.....	16
Caesar.....	8
Daunus.....	28
Delphos.....	28
Hadria.....	18
Ilium .....	12
Ionius.....	14
Jupiter.....	6-14
Lesbius.....	6
Liber.....	6
Libitina.....	28
Lycus.....	6
Lydia.....	16-18
Mars.....	10
Maeonius.....	8
Maevius.....	12
Melpomen.....	28
Merion.....	10

izenakorrialdeak

Orion.....	12
Ornytus.....	16
Pallas.....	10-12
Pelida.....	8
Pelops.....	8
Phoebus.....	30
Pontus.....	24
Sabina.....	20
Soracte.....	20
Thaliarchus.....	20
Thurinus.....	16
Tydis.....	10
Ulixes.....	8
Varius.....	8
Venus.....	18
Chloe.....	16-18

Legezko gordailua:BI-937-86